Bergarako Udala

PLEGU TEKNIKOEN BALDINTZAK,
HONAKO HAUEK KONTRATATZEKO:

BERGARAKO ZINE ZERBITZUA ETA JARDUERA KULTURALETARAKO LAGUNTZA TEKNIKORAKO ZERBITZUAK

1.- XEDEA

Deialdi honen xedea da Bergarako zine zerbitzua eta jarduera kulturaletarako laguntza teknikorako zerbitzuak kontratatzea. Hala, bi sortatan bereizten diren bi zerbitzu hauek kontratatzea du helburu deialdi honek:

- 1.Sorta: Zine zerbitzua.
- 2.Sorta: Jarduera kulturaletarako laguntza teknikorako zerbitzua.

Lehenengo sortako zerbitzuak helburu du Seminarixoan zinea emateko (haurrentzat eta helduentzat) aurreprogramazioa egin, filmak hornitu, garraiatu eta proiektatu eta zerbitzu osoa ematea. Bigarrenak, ostera, Bergarako Seminarixoa eta Zabalotegi aretoan, Bergarako udal pilotalekuan, udalaren jabetzakoa den udalerriko beste eraikinen batean zein kalean kultura jarduerak gauzatzeko beharrezkoak diren ikus-entzunezko tekniko espezialistaren lanak eta tekniko laguntzailearen lanak egiteko zerbitzua kontratatzea.

Plegu administratiboan jasotzen den bezalaxe, sortetan parte hartzeko zein horiek esleitzeko mugarik ez da ezartzen.

2.- ZERBITZUEN IRAUPENA ETA EPEAK

Bi kontratuak indarrean sartuko dira kontratua sinatu eta hurrengo hileko lehenengo egun baliodunetik zenbatzen hasita. Kontratuek urte bateko iraupena izango dute, eta luzagarriak izango dira urtez urte, gehienez beste bi urtez, guztira gehienez 3 urteko iraupena izango dutelarik.

1.sortako zerbitzuari (zinea) dagokionean, eta 3.1 atalean jasotakoari men eginez, zerbitzua bi denboralditan emango da, ordutegi zehatz batean. Egutegia eta ordutegia aldatzea erabaki dezake Udalak, eta horrek ez du kontratuaren baldintzetan eraginik izango.

2.sortako zerbitzuari (jarduera kulturaletarako laguntza teknikoa) dagokionean, zerbitzuaren lan-egutegia udalak antolatutako kultura programazioaren menpe egongo da. Lan-jarduna aldagarria da, astelehenetik igandera bitartekoa, urtean konputatzekoa. Gehienetan asteburuetan eta gau eta jaiegunei dagokien ordutegian eta egutegian eman beharko da zerbitzua.

Lanen antolaketa garaiz eta ondo egin ahal izateko kultur zerbitzuak aurreko hileko erdialdetik aurrera hurrengo hileko programazioa aurreratuko dio adjudikazio-hartzaileari, zehaztuta beharra noiz egongo den. Programa kulturalaren ezegonkortasuna eta irregulartasuna ikusirik, aurre-programatutakotik haratago sortutako beharren aurrean,

ESKUf91b7b1a-b80d-418c-960b-ffc0768610d5

ahal den heinean, modu errotatiboan jardungo da baliabide propio zein adjudikazio-hartzailearekin.

Lanaren izaeragatik noiz edo noiz ezustekoak izan daitezkeenez, eta premiazko lanak sor daitezkeenez, hauei ere erantzun beharko zaie, enpresak bere proposamenean horrelako kasuei erantzuteko agindutako epearen barruan.

Prezio unitarioa bakarra izango da. Ez da gehiago ordainduko gauez edota aste bukaeratan zerbitzua ematen bada.

3. ZINE ZERBITZUA

Seminarixoan zinea emateko (haurrentzat eta helduentzat) aurre-programazioa egin, filmak hornitu, garraiatu eta proiektatu eta zerbitzu osoa emango du adjudikazio-hartzaileak.

Bergarako Seminarixoa kultur ekipamendu bat da, Bergarako udalerriko San Martin plazan dago, eta berorren xedea da jendaurrean publiko guztiarentzat erakusgai jartzea arte eszenikoak, antzerkia, dantza, musika edo zinea. Seminarixoak honako espazio hauek ditu:

- Sarrerako atartea
- Takila (sarreren prezioa Udalak zehaztuko du urteko tasen arabera)
- Ikuskizunetarako aretoa; besaulki-patioa eta korua dauzka.
- Kamerinoak
- Garbiketa-gela
- Komunak
- Biltegi bat sotoan
- Instalazioetarako hainbat gela

Aretoaren ezaugarriak honakoak dira (aforoa, aho-zabalera, aho-altuera eta ahotiko sakonera, sorbaldak):

- Aforoa: 254
- Aho-zabalera: 6,80 m
- Aho-altuera: 5,40 m
- Ahotiko sakonera: 6,290 m
- Sorbaldak: Ikusi plano orokorra.

Seminarixoko aretoaren dotazio teknikoari buruz –enpresa lizitatzaileak sakon ezagutu beharko duena–, udalak honako hau du:

- Zine-proiektore digitala 2k 2.2kw. objektiboa eta zerbitzaria barne.
- Kutxa isilgarria, zine digitaleko proiektoreentzat.
- Zine digitalerako soinu-prozesadorea.
- Monitorea, ukipenezko pc integratuarekin edo pc eramangarriarekin.
- Zine-bozgorailuak, pantaila.

ESKUf91b7b1a-b80d-418c-960b-ffc0768610d5

- Bozgorailua azpigrabeentzat.
- Zine-bozgorailua, surround ingurugirokoa.
- Proiekzio-pantaila, parekoa, elektrikoa, biribilgarria.
- Blue-ray erreproduzigailu profesionala.

Rider Teknikoa eta Bestelako informazioa **webgunean** dago eskuragarri (www.seminarixoa.eus).

3.1. Zine zerbitzuaren ezaugarriak

Seminarixoan zine-zerbitzua bi denboralditan eskainiko da. Alde batetik, urtarriletik ekainera (biak barne), eta bestetik, irailetik abendura (biak barne).

Informazio gisara 2024an, guztira 69 film eta 111 zine emanaldi eman ziren (publiko guztientzat eta helduentzat).

Zine-programaziorako egutegiaren aurreikuspena honakoa da:

- Igandeetan, helduena: 19:30
- Astelehenetan, helduena (Ikuslearen Eguna): 19:30
- Igandeetan: 17:00

Horietaz gain, Bergarako Udalak zine klub saioak eskaintzen ditu asteazkenero, 20:00etan, eta horien kudeaketa integrala Udalaren baliabide propioekin egiten da.

Bergarako Udalak baloratuko du egun berezietan zine emanaldiaren ordez beste ekitaldi bat antolatzea (adibidez kontzertu edo antzerkiren bat). Kultura zerbitzuak emanaldi hori beste data batean ematea eskatu ahal izango du ezarritako egutegitik kanpo; adibidez, Inauterietako emanaldiak ekainean edo irailean ematea, edo aste bitarteko beste egunen batean (adb zine-forumean). Aldaketa horiek enpresa adjudikazio-hartzaileari gutxienez hilabete bat lehenago jakinaraziko zazizkio.

3.2 Adjudikazio-hartzailearen betebeharrak

Kontratuan sartuta dauden eta enpresak eman behar dituen prestazioak izango dira kontratua betetzeko beharrezkoak diren guzti-guztiak, betiere udalak berariaz bere gain hartu dituenak kenduta. Besteak beste, eta argibide gisa baino ez, honako hauek:

1. Zine-programazioaren aurre-aukeraketa bat egingo du bi (2) hilabete lehenago; ondoren Kultura Zerbitzuak erabakiko du zine-programazioa, aurrez adosturiko egutegiarekin bat etorriz.
2. Emango diren filmen horniketa; garraioa eta zerbitzarirako deskarga barne.

   Pelikulen horniketa-gastu guztiak enpresa kontratu-hartzailearen kontura izango dira.
3. Filmak proiektatu, garraiatu eta jasotzea, eta proiektatu ondoren, banatzaileari berriz bidaltzea.

ESKUf91b7b1a-b80d-418c-960b-ffc0768610d5

4. Zine-programazioaren informazioa Udalak duen plataformara igo eta online bidezko zein leihatilako salmentarako prestatzea gutxienez hilabetea hasi baino hamabost egun lehenago.
5. Programaziotik eratortzen diren zerbitzu osagarriak egitea: prezio eta ordutegiak prestatzea, ohar-jakinarazpenak, kartelak eta iragarkiak ohiko tokietan banatu eta jartzea astero; udalerrian 20 informazio-panel daude.
6. Publikoaren sarrera kontrolatu eta jendea jarlekura lagundu.
7. Zine-saioetako sarrerak saltzeko edo leihatilako zerbitzua.
8. Instalazioak eta ekipamenduak kontrolatzea, pertsonak, ondasunak eta instalazioak egoki babestuko direla bermatzeko moduko behar beste baliabide pertsonal, material eta tekniko jarrita, instalazioa irekitzen denetik itxi arte.
9. Toki eta instalazio guztiak garbi eta txukun mantentzea, garbiketa-egoera egokian, bai kanpoaldean, bai barnealdean, saioen artean.
10. Barneko segurtasuna mantentzea barruti osoan.
11. Erabiltzaile guztien jokabidea kontrolatzea, indarrean dauden arau guztiak bete ditzaten saiatuz.
12. Leihatilan eta salmentetan jasotako diruaren likidazioa egitea; zine emanaldi zein bestelako ekitaldien sarrera salmentarena.
13. Izandako gertakariekin zerrenda bat egitea, eta zerrenda horren berri ahalik eta azkarren ematea Kultura Zerbitzuari.
14. Saio-egunetan instalazioak garbitzea, baita egun berean saioen artean garbiketa egitea ere.

Horietaz gain, beste betebehar hauek izango ditu adjudikazio-hartzaileak:

a) Hamabost eguneko epean jakinaraztea sor daitezkeen ezintasunak edo bateraezintasunak, eta horiei erantzuteko emandako irtenbidea.
b) Kulturako udal arduradunak ezarritako koordinazio-bileretara joatea, alde biek ezarritako koordinazio eta ebaluazio mekanismoak betez.
c) Zerbitzuak emateko beharrezkoak diren langile kualifikatuak kontratatzea. Kontratatutako langileei buruz, kontratuen eta Gizarte Segurantzan alta eman izanaren agirien kopiak aurkeztu beharko dira gehienez ere 10 eguneko epean –kontratatzen diren egunetik kontatzen hasita–.
d) Udal honekiko betebeharretan egunean egotea.
e) Zerbitzua emateko behar den diziplina mantentzea.
f) Udalaren hizkuntza-irizpideak betetzea.
g) Kontratatutako zerbitzuak ematerakoan, ezingo da erabili hizkera sexistarik, ezta emakumezkoenganako diskriminazioa dakarren irudirik ezta estereotipo sexistarik ere. Halaber, ez da jarrera LGTBIfobikorik edo bestelako erasorik onartuko.
h) Zerbitzua ematen duten enpresako langileek delitu sexualengatik zigortuak ez direla izan egiaztatzen duten egiaztagiriak izan beharko dituzte, betiere eguneratuta, eta enpresak udaletxean aurkeztu beharko ditu egiaztagiriok.

ESKUf91b7b1a-b80d-418c-960b-ffc0768610d5

i) Formatu digitalean hornitutako filmak behar bezala legeztatuta egon beharko dira, bai jendaurrean zabaltzeko eskubideari buruz (dokumentu hori proiekzio-saio guztietan egon daitezkeen ministerio-ikuskaritzetarako eskura izan beharko dute), bai jabego intelektual eta industrialari buruz, bai markei buruz, etab.

j) Enpresa adjudikazio-hartzailea kontratua sinatzerakoan konprometitzen da eperik laburrenean hornitzera, eta inola ere ez du gainditukо filma estreinatu eta hilabeteko epea.

   Enpresa adjudikazio-hartzaileak film bakoitzaren beharrezko kalifikazioa aurkeztuko du, adinaren araberakoa, baita filmaren iraupena ere.

k) Sarrera-salmentaren hileko diru-kitapena egitea, Bergarako Udalak ezarriko duen sistemaren arabera.

l) Seminarixoan zerbitzua ematerakoan, 10/2015 Legea betetzea (abenduaren 22koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena), bai eta lege horren garapenerako gainontzeko legedia ere.

m) Enpresa adjudikazio-hartzaileak eta bertako langileek Seminarixoko Autobabes Plana ezagutu eta jarraitu beharko dute (eskuragarri www.seminarixoa.eus helbidean).

   Plan horretan jasota dauden segurtasun-neurri guztiak hartu beharko dituzte, bai eta arlo horri buruzko araudietan jasota dauden guztiak ere.

Erabat debekatuta dago lokal edo instalazio horietan kontratistak kontratu-xedekoa ez den beste erabilerarik egitea; horretarako udalak berariazko baimena eman beharko baitio.

3.3. Programazio zinematografikoan jarraitu beharreko irizpideak

Programazio zinematografikoa prestatzeko, honako irizpide hauek jarraituko dira:

- Mota guztietako generoak sartzea, eta zinema independentearen, europarraren edota iberoamerikarraren emanaldiak eskaintzea.
- Gaurkotasunezko filmak, estreinatu berriak.
- Euskaraz egindako filmak edo euskarara bikoiztutakoak; hain zuzen, zine komertzialeko zirkuitura iristen direnak.
- Emakume zinemagileen filmak bermatuko dira programazioan.
- Berdintasuna, aniztasuna, erantzunkidetasuna, genero rolen eta identitateen aniztasuna…sustatuko dituzten filmak bermatuko dira programazioan.
- Programazioaren edukiarekin batera filmen fitxa bidali beharko da.

Zine-emanaldietan bezeroei kobratuko zaien prezioa udal ordenantzan zehaztuta egongo da, eta jarduera honen ondorioz biltzen den diru guztia Bergarako Udalarentzat izango da.

ESKUf91b7b1a-b80d-418c-960b-ffc0768610d5

Bergarako Udala

3.4. Giza baliabideak

Takilako, jarlekura laguntzeko eta proiekzioko zerbitzua emateko, gutxienez hiru langile egon beharko dira (zine-operadore edo aretoko teknikari bat, eta bi laguntzaile).

3.4.1. Takilako eta jarlekura laguntzeko lanak (bi langile)

Seminarixorako beharko diren langile laguntzaileak lehenengo zine-saioa hasi baino hirurogei minutu aurretik lantokian egon beharko dira (atean edo barruan); orduan aztertu beharko dute ea egoera onean dauden sarrerak, komunak, besaulki-patioa eta informazio-panelak, eta horretaz gain sarrerak saltzeko zerbitzua ere gertatu beharko dute, betiere Bergarako Udaletik aurretik emandako jarraibideen arabera egiteko.

Behin saioa bukatutakoan eta publiko guztia aretotik irten ondoren, ikuskapen orokorra egingo dute besaulki-patioa eta atxikitako espazioak ondo dauden ikusteko. Edozein kalte edo arazo antzemanez gero, horren berri eman beharko zaio Seminarixoko teknikari arduradunari.

Enpresa adjudikazio-hartzailearen langileak behar bezala uniformatuta egon beharko dira eta une oro publiko orokorrarenganako tratu egokia agertuko dute; zerbitzua ematera doazenean, gutxieneko higiene eta txukuntasun arauak errespetatuko dituzte, eta publiko guztiei EUSKARAZ hitz egingo diete lehenengo.

Takilako eta jarlekura laguntzeko lanak, besteak beste, honako hauek dira:

a) Publikoari arreta eman ekitaldiaren aurretik, zehar eta ondoren.

b) Lan-orduetan zehar espazioen zaintza-lanak egitea.

c) Aforoa zaintzea. Ezingo dira saldu edo banatu baimendutakoak baino sarrera edo gonbidapen gehiago.

d) Erabiltzaileak zaintzea, erregelamendu eta arau orokorrak errespetatzen direla bermatuz, eta aretoan zaintza-lanak egitea.

   Berezi-bereziki, haurrentzat diren zuzeneko ikuskizunetan edo zine-saioetan, zaintzako eta jarlekura laguntzeko zerbitzu-lana izendatuta duen langileak derrigor aretoaren barruan egon beharko du ikuskizuna edo proiekzioa bukatu arte.

e) Publikoari arreta eta eskatutako informazioa ematea, edo bestela, eskari hori bideratzea.

f) Ondo ez dauden edo laguntza behar duten erabiltzaileei laguntzea.

g) Sarrerak, zine-abonuak, Seminarixoko bazkide-txartelak edo agindu dakizkiokeen bestelako produktuak saltzea, udaletik zehaztutako jarraibideen arabera.

h) Sarrerak saltzen dituenak, behin ikuskizun edo proiekzioa hasi eta gero, takilan ordu erdi batez gelditu beharko du, takila-orriak edo filmen erakuste-orriak edo udaletik eskatutako beste dokumentu batzuk betetzen eta, aldi berean, berandu irits daitezkeen pertsonei arreta edo informazioa ematen.

ESKUf91b7b1a-b80d-418c-960b-ffc0768610d5

i) Takilako eta sarrera-salmentako zerbitzua emateko orduan, indarrean dagoen lege-araudia eta Bergarako Udalaren jarraibideak errespetatu beharko dira.

Saio bakoitza hasi baino 60 minutu aurretik zabaldu beharko da takila; eta saioa hasi ondoren, 15 minutuz mantenduko da zabalik.

j) Ikuskizun berrien kasuan, hasierako datuei alta ematea, horrela euskarri informatikoan salmentaren eta diru-bilketaren kontrola egokitu ahal izateko.

Lan hauek izendatuta dituzten langileek honako betebeharrak bete beharko dituzte:

- Adinez nagusia izatea
- Eskola-graduatua

- Euskaraz ondo jakitea. Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasun-maila egiaztatzea (2. profila edo parekidea), ahozkoari dagokionean. Herritarrekiko harremanetan euskararen erabilera bultzatzea, lehenengo erabilera-hizkuntza gisa.

3.4.2.- Zine-operadore edo proiekzionista lanak

Zerbitzuaren adjudikazio-hartzaileak pertsona bat izendatuko du zine-operadore edo proiekzionista lanak egiteko.

Pertsona horrek, pelikulak proiektatu aurretik, ondoren zehazten diren lanak egingo ditu:

- DCPak kargatu
- Film digitalen giltzak jaso
- Filmen dokumentazioa kontrolatu
- Proiektore digitala programatu
- Berari dagokion ekipamenduaren aparatuak eta makinak maneiatu

Lan hauek izendatuta dituzten langileek honako betekizunak bete beharko dituzte:

- Adinez nagusia izatea
- Argiztapen, soinu eta/edo arte eszenikoen eta eszena-makineriaren errejidore-lanetarako Lanbide Heziketaren II. mailako formakuntza eta gutxienez urtebeteko esperientzia izatea.
- Euskaraz ondo jakitea. Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun-maila izatea (3. profila edo parekidea). Herritarrekiko harremanetan euskararen erabilera bultzatzea, lehenengo erabilera-hizkuntza gisa eta euskarazko idatziak kalitatez idazteko gaitasuna izatea. Maila bat beheragokoa

3.4.3.- Koordinazio eta bitartekaritza lanak

Enpresak bitartekari-lanak egiteko izendatuko duen pertsonak, adjudikazio-hartzailearen izenean eta ordezkaritzan, honako lanak egin beharko ditu:

- Bergarako Udaleko Kultura Zerbitzuarekin koordinatu eta informazioa eman.
- Kontratu-xede diren zerbitzuak benetan gauzatzearen ardura hartu

ESKUf91b7b1a-b80d-418c-960b-ffc0768610d5

- Bergarako Udalaren aurrean ordezkaritza-lana
- Kontratatutako zerbitzuen exekuzioa antolatu eta Bergarako Udalak emandako aginduak interpretatu eta praktikan jarri
- Eurek konpondu ezin dituzten matxurak horren ardura duten udal langileei jakinaraztea, bai eta Seminarixoko udal teknikari arduradunari ere.
- Kultura teknikariarekin harremana izatea, astero edo honek beharrezkoa irizten dion guztietan.
- Udalarekiko harremanak euskaraz izango dira, ahoz zein idatziz.

Enpresa adjudikazio-hartzaileak Bergarako Udalari hilero txosten bat aurkeztuko dio; bertan jaso beharko da zenbat lan-ordu egin diren, zer nolako intzidentziak gertatu diren emandako zerbitzuan edo ekipamenduan, eta hilabete horretan programatutako jarduketei buruzko takila-orriak aurkeztu ere.

Bergarako Udalak une oro zaindu eta ikuskatu ahal izango ditu kontratatu diren zerbitzuak. Ikuskapenok Bergarako udal teknikari arduradunak egoki irizten dion guztietan egin ahal izango dira.

Langile bat ordezkatzeko langile berririk sartuko balitz, eskainitako langileen ezaugarri bereko edo antzerako langileak atxikiko dira zerbitzura. Profila berbera ez balitz izango, Udalaren adostasuna beharko da.

4. JARDUERA KULTURALETARAKO LAGUNTZA TEKNIKORAKO ZERBITZUA

Enpresa adjudikazio hartzaileak, Bergarako Seminarixoa eta Zabalotegi aretoan, Bergarako udal pilotalekuan, udalaren jabetzakoa den udalerriko beste eraikinen batean zein kalean kultura jarduerak gauzatzeko beharrezkoak diren ikus-entzunezko tekniko espezialistaren lanak eta kultura laguntzailearen lanak egingo ditu Udaleko kultura zerbitzuak hala eskatuta.

Zerbitzua Bergarako udalerrian garatuko da, Seminarixoa aretoan eta udalerriko beste zenbait gunetan: Zabalotegi aretoan, Irizarko Euskaldunberri aretoan, Aroztegi aretoa, liburutegian, Bergarako udal-pleno aretoan, udal pilotalekuan, Boluko pilotalekuan eta kontratuaren garapenean sor litezkeen beste zenbaitetan, itxi nahiz irekietan.

Zerbitzua espazio horietan emateaz gain, bestelako eragileek antolatutako ekimenetarako laguntza ere emango dute, udalak lagundutako nahiz alokairua ordainduz baimendutako ekimenetan, nahiz eta kalean izan. Kasu hauetan udalak sustatutako ekimenetako langile-kopuruak jarriko dira erabiltzailearen esku.

Zerbitzua modu egokian eskaini ahal izateko udalak hornituko du ekipamendua beharrezkoak diren soinu eta argi material tekniko guztiekin. Ekipamendua eta baliabide materialak egoera onean mantendu behar dira. Ekipamenduen funtzionamendurako eta mantenurako gastuak udalaren kontura izango dira, baita konponketak edota beharrezkoak diren berrikuntzak ere, kaltea enpresaren lan-praktika desegokiaren ondorioa denean izan ezik.

ESKUf91b7b1a-b80d-418c-960b-ffc0768610d5

Ekitaldi jakin bat antolatzeko udalak ez baditu nahikoa baliabide material soinua eta argia kudeatzeko, kudeaketa integrala (laguntza teknikoa barne) azpikontratatu dezake adjudikazio-hartzailea ez den bestelako enpresa batekin.

4.1. Adjudikazio-hartzaileak egin beharreko lanen izaera.

4.1.1. Ikus-entzunezko tekniko espezialista lanak:

a. *Seminarixoa eta Zabalotegi kultura aretoetan*: ikuskizunen eta orokorrean programatutako eszena eta zine-klub/dokumental ikuskizunetako muntatze, garatze eta desmuntatze lanen ardura: antolatu, kontrolatu eta lagundu. Bertako soinu, argi eta bideo teknikari-lanak eta aretoa bera eta bertako ekipo eta tresneria guztien mantenua eta kontrol zuzena egin. Betiere, Seminarixoko arduradun teknikoaren zuzendaritzapean. Halaber, leihatilako eta atezaintza lanak egin.

b. *Zine operadorea*ren lanak egin. Bergarako Udalak asteazkenero Zineklub zerbitzua ematen du Seminarixoan. Dinamizatu, antolatu eta modu egokian betetzen dela ziurtatzeaz arduratu beharko da adjudikazio-hartzailea.

c. *Jai-ekintzetan*: ekitaldietarako azpiegituren muntatze, garatze eta desmuntatze lanen ardura hartu, zaintzea eta hainbat lan. Kontratatutako taldeei eta bestelakoei ere harrera egin, ekitaldien jarraipen eta balorazioa egin eskatzen zaion guztietan. Momentuan sortu daitezkeen bat-batekoak kudeatu eta dagokion arduradunarekin kontrastatu. Ekitaldiei argazkiak atera eta udaleko komunikazio arduradunari bidali dagokien zabalpena emateko.

d. *Kultura-ekintzetan*: Zabalotegi aretoan dituen eginkizun berdinak, bai bertan direnean bai beste toki batean direnean ere. Lagundu hura zabaltzen, kartelak jartzen eta kentzen, eta abar. Udalak antolatutako ekitaldiak direla eta, kultur talde eta bestelakoei harrera egin eta ekitaldien jarraipen eta balorazioa egin eskatzen zaion guztietan.

e. Kultura eta kirol eraikinak ireki, itxi, prestatu eta zaindu, bertan jai edo/eta kultura ekintzak antolatu direnean.

f. Musika-tresneria eta argiteriarena muntatu, desmuntatu, jarri eta kontrolatu, eta edozein kultur ikuskizun eta emanaldi aurrera eramateko beharrezkoa denean materiala garraiatu.

g. *Aroztegi aretoan:* antolatzen diren erakusketen muntatze eta desmuntatze lanak egin eskatzen zaionean.

h. Seminarixoan eta Zabalotegi aretoan dagoen eta erabiltzen diren makineria eta tresnak zaindu eta mantentzen lagundu.

i. Seminarixoko arduradun teknikoari antolaketa-lanetan lagundu eta premia dagoenean –Udalak horrela erabakita– arduradun teknikoaren lan batzuk egin.

j. Obra eta Zerbitzuetako lantaldeei lagundu, hala behar denean eta eskatzen zaionean.

k. Kultura- eta jai-ekintzetan erabiltzaile eta ikusleen segurtasuna zaindu.

ESKUf91b7b1a-b80d-418c-960b-ffc0768610d5

l. Kultura- eta jai-ekintzetan Udalak kontratatutako talde edo enpresei harrera egin eta dituzten premiei erantzuteko bitartekoak jarri, betiere Kultur teknikariaren eta Seminarixoko arduradun teknikariaren agindu eta irizpideei jarraituz.

m. Bere menpe egon daitezkeen langileen lana koordinatu, planifikatu eta gainbegiratu.

n. Larrialdietako planaren arabera adjudikatutako lanak egitea.

o. Kartelak egin, bideo eta argazkiak atera hainbat ikuskizunetan. Sare sozialen bidez dauden ekintzen zabalkundea egin. Kultur ekintzen komunikazioa erraztu eta kultura teknikariak arlo honetan eskatzen dizkion betekizunei erantzun.

p. Seminarixoa aretoko emanaldien kartelak egin eta kartelez elikatu Seminarixoan kalera begira jarrita dagoen pantaila.

q. Eta, oro har, Bergarako Udaleko Kultura teknikariek eta Seminarixoko arduradun teknikoak hala eskatuta, Kultura Zerbitzuaren baitan sor daitezkeen bestelako eginkizunak.

4.1.2. Kultura laguntzaile lanak:

- *Seminarixoan eta Zabalotegi kultura aretoan*: ikuskizunen muntaketako arduradunei lagundu eta takila, atezaintza eta mantentze lanak egin.
- *Jai-ekintzetan*: muntatzea, zaintzea eta bestelako lanak. Kontratatutako taldeei eta bestelakoei ere harrera egin eta ekitaldien jarraipen eta balorazioa egin eskatzen zaion guztietan.
- *Kultura-ekintzetan*: lagundu hura zabaltzen, kartelak jartzen eta kentzen, udalak antolatutako ekintzak iragartzen duen materiala etxez etxe banatzea etab.
- Udalak antolatutako ekitaldiak direla-eta, kultur talde eta bestelakoei harrera egin eta ekitaldien jarraipen eta balorazioa egin eskatzen zaion guztietan.
- Kultur eta kirol eraikinak ireki, itxi, prestatu eta zaindu.
- Musika-tresneria muntatu, desmuntatu, jarri eta kontrolatu, eta edozein kultur ikuskizun eta emanaldi aurrera eramateko beharrezkoa denean materiala garraiatu.
- Bergarako Musika Bandaren kontzertuetan beharrezkoa den material guztiaren garraioa, muntaia eta desmuntaia. Baita sarreren banaketa eta salmenta hala behar den kasuetan, eta ikusleen harrera eta akomodadore lanak egitea.
- Erabiltzen dituzten makineria eta tresnak zaindu.
- *Aroztegi aretoan:* antolatzen diren erakusketen muntatze eta desmuntatze lanak egin eskatzen zaionean edo/eta zaintza-lanak ere, eskatuko balitzaio.
- Kultura- eta jai-ekintzetan erabiltzaile eta ikusleen segurtasuna zaindu.
- Larrialdietako planaren arabera adjudikatutako lanak egitea.
- Eta, oro har, Bergarako Udaleko kultura teknikariek hala eskatuta, kultura zerbitzuaren baitan sor daitezkeen bestelako eginkizunak.

ESKUf91b7b1a-b80d-418c-960b-ffc0768610d5

Bergarako Udala

4.2. Giza baliabideak

Enpresa adjudikazio-hartzaileak Udalarekin harremanak izateko bitartekari bat izendatuko du. Udalak hari emango dizkio azalpen, agindu eta zerbitzua emateko beharrezkoa den informazioa. Posible da bitartekari lanak egingo dituen pertsonak zerbitzua bera gauzatzea arduradun tekniko gisa. Adjudikazio-hartzaileak helbide elektroniko bat eta telefono-zenbaki bat eman behar dizkio Udalari bitartekariarekin edo haren ordezkoarekin harremanetan jarri ahal izateko 24 ordutan, astelehenetik igandera eta beharrezkoa denean. Kostu hau adjudikazio-hartzaileak hartuko du bere gain.

Ikus-entzunezko tekniko espezialista eta kultura laguntzaile lanetarako gutxienez lau langile atxiki beharko dizkio adjudikazio-hartzaileak zerbitzu honi. Eskaintza teknikoan azalduko dira langile horien ezagutzak (ikasketak, formakuntza berezia, hizkuntza gaitasuna…) eta esperientzia.

Ikus entzunezko lanak egiteko langilearen profila (minimoa) eta eskakizunak honakoak dira:

- Adinez nagusia izatea
- Goi mailako Batxiler, FPII edo goi mailako espezialista edo pareko mailakoa den tituluaren jabe izatea eta gutxienez urtebeteko esperientzia izatea.

  Titulazio espezifikorik izan ezean, gutxienez eskola graduatua izan beharko du eta gutxienezko hiru urteko esperientzia teknikari lanetan ikus entzunezko zuzeneko ikuskizunetan (Argiztapen, soinu eta/edo arte eszenikoen eta eszena-makineria).
- Euskaraz ondo jakitea. Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun-maila izatea (3. profila edo parekidea). Herritarrekiko harremanetan euskararen erabilera bultzatzea, lehenengo erabilera-hizkuntza gisa eta euskarazko idatziak kalitatez idazteko gaitasuna izatea. B2 maila onartuko da betiere webguneko argitalpenetara begirako funtzioak beste langileren batekin egiteko aukera badauka (langile horrek C1 gaitasuna badauka).

Kultura laguntzaile lanak egiteko langilearen profila (minimoa) edo eskakizunak honakoak dira:

- Adinez nagusia izatea
- Eskola Graduatua, LH-I edo erdi mailako espezialista edo pareko mailakoa den tituluaren jabe izatea.
- B gidabaimena izatea.
- Euskaraz ondo jakitea; Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasun-maila egiaztatzea (2. profila edo parekidea), ahozkoari dagokionean. Herritarrekiko harremanetan euskararen erabilera bultzatzea, lehenengo erabilera-hizkuntza gisa.

Langile bat ordezkatzeko langile berririk sartuko balitz, eskainitako langileen ezaugarri bereko edo antzerako langileak atxikiko dira zerbitzura. Profila berbera ez balitz izango, Udalaren adostasuna beharko da.

ESKUf91b7b1a-b80d-418c-960b-ffc0768610d5

Bergarako Udala

5. HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Kontratazio honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua. Besteak beste, azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuan eta Bergarako Udalak onartutako euskararen erabilera normalizatzeko planean (Udalbatzarrak 2023-05-22an onartua) jasotakoa.

Horiek guztiak erreferentzia gisa hartuta, kontratazio honetan ondorengo irizpideak kontuan hartu beharko dira hizkuntzari dagokionez:

5.1. Zerbitzua emango duen pertsonalak bete beharreko baldintzak

Bergarako Udaleko langileek bete behar lituzketen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte zerbitzua emango duten langileek ere euskarazko gaitasunari dagokienez.

Behin-behineko adjudikazioa egin eta 10 egun baliodunen barruan, enpresak egiaztatu beharko du zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako euskara-gaitasuna.

Euskarako gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:

- Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,
- Bergarako Udalak erabakitako froga egitea.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere euskara-gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Plegu honetan zehaztutako zerbitzua emateko enpresa adjudikazio-hartzaileak proposatu dituen pertsonek ez badituzte betetzen atal honetako baldintzak edo aurreko atalekoak (giza baliabideak), enpresa adjudikazio-hartzaileak zerbitzua emateko beste pertsona batzuk aurkeztu beharko ditu. Azken hauei ere dagozkion probak egingo zaizkie, eta langile horiek ere ez badituzte probak gainditzen, Udalak kontratua deuseztatu ahal izango du. Hori gertatuz gero, enpresak ez du izango kalte-ordainik erreklamatzeko eskubiderik eta, gainera, galdu egingo du ezarritako behin betiko fidantza.

5.2. Hizkuntzaren erabilera

Udalaren ohiko lan-hizkuntza euskara izanik, kontratatutako enpresaren eta udalaren arteko harreman orokorrak euskaraz bideratuko dira, bai ahoz eta bai idatziz.

Lana euskaraz edo elebietan (euskaraz eta gaztelaniaz) bideratuko da, Udaleko Erabilera Planean finkatutako irizpideen arabera. Kontratazioaz arduratu den udal-teknikariak edo dagokion arduradun politikoak (Euskara Zerbitzuko teknikariarekin batera) emango dio enpresari euskararen erabilera bultzatzeko bestelako irizpideen berri.

ESKUf91b7b1a-b80d-418c-960b-ffc0768610d5

Euskaraz eta gaztelaniaz behar diren dokumentuak (edota audioak) enpresak berak itzuliko ditu. Eta zalantzak daudenean arduradun politikoarekin edo teknikoarekin edota Udaleko Euskara Zerbitzuarekin hitz egingo da.

Euskararen erabileraren inguruko irizpide orokorrak:

Udal barrurako komunikazioak (ahoz zein idatziz) euskaraz izango dira orohar (bilerak, txostenak, …).

Kanpo komunikazioa. Komunikabideekiko eta herritarrekiko harremanak:

- Ahozko komunikazioa

  Lehen hitzak beti euskaraz izango dira eta jarrera proaktiboa izango da.

  Hartzaile multzoa denean, euskararen erabilera bultzatzeko aukera desberdinak aztertuko dira, dagokion udal arduradunarekin batera.

- Idatzizko lanak:

  Euskara ulertzen duten guztiekin harremanak euskara hutsean bultzatuko dira, eta gainontzekoekin euskaraz eta gaztelaniaz, euskarari lehentasuna emanda.

  Komunikabideetara albisteak bidaltzerakoan euskaraz edo elebitan (euskaraz eta gaztelaniaz) bideratuko dira.

5.3. Euskararen kalitatea

Ahoz zein idatziz erabiliko den euskararen kalitatea (zuzentasuna, ulergarritasuna...) bermatu beharko da. Zalantzarik izanez gero, Udaleko Euskara Zerbitzuak emango ditu behar diren aholkuak.

5.4. Hizkuntzaren erabileraren jarraipena

Zerbitzu-kontratazioa bultzatu duen udal zerbitzuak egingo du hizkuntza-irizpideak betetzearen jarraipena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen moduan.

Horretarako, enpresako arduradunak aldiro Udalari aurkeztuko dion zerbitzu-txostenean hizkuntzaren inguruko datuak ere jasoko ditu. Eta horren berri emango zaio Udaleko Euskara Zerbitzuari.

Bergaran, sinadura elektronikoaren datan.

Sin.:

Zaloa Bernal D'Arcy

Kultura teknikaria

DILIGENTZIA: Jasota gera dadila Zine zerbitzua eta jarduera kulturaletarako laguntza teknikorako zerbitzua gauzatzeko baldintza teknikoen agiri hau 2025eko ekainaren 1eko dekretu baten bidez onartutakoa dela.

ESKUf91b7b1a-b80d-418c-960b-ffc0768610d5

Bergaran, sinadura elektronikoaren datan.

IDAZKARIA

ESKUf91b7b1a-b80d-418c-960b-ffc0768610d5

Bergarako Udala

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS

PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE CINE Y DE LOS SERVICIOS DE AYUDA TÉCNICA PARA ACTIVIDADES CULTURALES DE BERGARA

1.-OBJETO

Constituye objeto de la presente convocatoria la contratación del servicio de cine y de los servicios de ayuda técnica para actividades culturales de Bergara. Así pues, esta convocatoria tiene por objeto la contratación de estos dos servicios que se dividen en dos lotes:

- Lote 1: Servicio de cine
- Lote 2: Servicio de ayuda técnica para actividades culturales

El servicio del primer lote tiene como objetivo la elaboración del avance de programación (tanto para el público infantil como el adulto), el suministro, transporte y proyección de las películas y la prestación integral del servicio. El segundo lote, por su parte, tiene por objeto la contratación del servicio de ejecución de los trabajos de técnico especialista de audiovisuales y técnico auxiliar que sean precisos para el desarrollo de actividades culturales en Bergara en la sala Seminarixoa y sala Zabalotegi, en el frontón municipal de Bergara, en otros edificios del municipio de propiedad municipal, así como en las calles.

Tal y como se recoge en el pliego administrativo, no se establecen limitaciones para la participación en lotes ni para su adjudicación.

2.- DURACIÓN Y PLAZOS DE LOS SERVICIOS

Ambos contratos entrarán en vigor el primer día hábil del mes siguiente al de su firma. Los contratos, que tendrán una duración de un año, serán prorrogables por períodos anuales hasta un máximo de dos años, con una duración total máxima de 3 años.

En cuanto al servicio del lote 1 (cine), y de acuerdo con lo recogido en el apartado 3.1, el servicio se prestará durante dos temporadas en un horario determinado. El Ayuntamiento estará facultado para modificar el calendario y el horario, sin que ello incida en las condiciones del contrato.

En el caso del servicio del lote 2 (ayuda técnica para actividades culturales), el calendario laboral del servicio estará supeditado a la programación cultural organizada por el ayuntamiento. La jornada laboral es variable, de lunes a domingo, computable anualmente. En la mayoría de los casos se deberá prestar el servicio en fin de semana y en horario y calendario nocturno y festivo.

Con el fin de que la organización de los trabajos se pueda llevar a cabo en tiempo y forma, el Servicio de Cultura adelantará a la adjudicataria a partir de mediados del mes anterior la programación del mes siguiente, concretando cuando va a ser necesario. Dada la inestabilidad e irregularidad del programa cultural, ante las necesidades que surjan aparte del avance programado se actuará, en la medida de lo posible, de forma rotativa tanto con el recurso propio como con el adjudicatario.

ESKUf91b7b1a-b80d-418c-960b-ffc0768610d5

Bergarako Udala

Dado que por la naturaleza del trabajo pueden surgir imprevistos y es posible que se produzcan trabajos urgentes, éstos deberán ser atendidos dentro del plazo que para estos casos haya establecido la empresa en su propuesta.

El precio unitario será único, sin que quepa abono suplementario alguno por prestación del servicio en horario nocturno o en fin de semana.

3. SERVICIO DE CINE

La adjudicataria para la emisión de cine en el Seminarixoa (tanto para el público infantil como el adulto) realizará el avance de programación, el suministro, transporte y proyección de las películas y la prestación integral del servicio.

